



2021/10/28KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2021/10/28
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:25

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Oihana Ameskoa Perez

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Iban Herrarte Arana

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

Gorka Astondoa Altuna

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzaila, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. 2020KO KONTU OROKORRA ONARTZEA.	3
4. BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA ARAMAIOKO H.A.P.O.REN 2. ALDAKETA PUNTUALARI.	3
5. GALDERAK ETA ESKAERAK.	5



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2021eko irailaren 30eko ohiko bilkurako aktaren gainean inork oharrik ote duen galdetu du.

Inork akta horri buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak akta onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (342/21etik 372/21era).

3. 2020KO KONTU OROKORRA ONARTZEA.

Alkateak aurkezten du 2020ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra. Kontu Orokorra osatzen dute, batez ere, udalaren 2020ko ekitaldiko eragiketen likidazioak eta udal enpresa publikoaren kontu eta auditoretza txostenak. Aurretik, dokumentu bakoitzak bere onarpena izana du dagokion foroan. Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak oniritzia eman ondoren, dagokion iragarkia argitaratu zen ALHAOn eta dokumentu osoa jendaurrean izan zen erakusgai 15 eguneko epean eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako diktamena:

“**Lehena.-** Onestea 2020ko Kontu Orokorra.

Bigarrena.- Dagokion erakundeei egoki den dokumentazioa bidaltzea jardunbideari jarraipena emateko.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA ARAMAIOKO H.A.P.O.REN 2. ALDAKETA PUNTUALARI.

Aramaioko Udalak HAPOn 2. Aldaketa Puntuala abian jarri zuen 2017ko abuztuaren 31n. Horrekin lotuta, 2018ko maiatzaren 15ean aurkeztu ziren, batetik, 2. Aldaketa Puntualari dagokion Ingurumen Azterketa Sinplifikatua; eta bestetik, planaren berradorea, dagokion ingurumen tramitazioa gauzatzeko.

2018ko azaroaren 26an, 334/2018ko Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiak igorri zuen 2. Aldaketa Puntualaren Ingurumen Txosten Estrategikoa.

Dokumentuaren talde idazleak herritarren parte-hartze programa aurkeztu zuen Udaletxean eta, 2019ko urtarrilaren 8an, esandako talde idazleak eta Udalak herritarren parte-hartze saioa gauzatu zuten.

Ondoren, 2019ko otsailaren 12an, HAPOn 2. Aldaketa Puntualaren dokumentua aurkezten zen eta, 2019ko martxoaren 5ena egindako osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zitzaion dokumentuari. Hasierako onarpenerako erabakia ALHAOn argitaratu zen, 2019ko apirilaren 17an, 47. zenbakian, eta hilabete batez ireki zen jendaurreko informazioaren izapidea. Jendaurreko epe horretan, 3 alegazio jaso ziren, eta dagozkion administrazioei txosten sektorialak eskatu zitzaizkien.

Jasotako txosten sektorial horietan eskatutako aldaketak egin ondoren, zehazki URA Agentziak agindutakoari jarraiki, 2021eko irailaren 16an, Agentzia horren aldeko txostena jaso da. Hortaz, aurrera jo da dokumentuaren idazketarekin.

Orain, 2021eko urriaren 18an, behin behineko onarpenerako dokumentua aurkeztu da, jendaurreko epean aurkeztutako alegazioen erantzunarekin batera.

Jasotako hiru alegazioei eta horien erantzunari dagokionez, laburbilduz, ondorengo azpimarratu beharra dago:

- 1 Alegazioa. Arabako Basogintza Elkartea.



Alegazioaren lehenengo eskariaren inguruan, "Baso-landaredia autoktonoa bada, baso-landaretza berria autoktonoa ere izan dadila errespetatu beharko da" esaldia kentzearen inguruan, Udalaren aldetik, eta Hirigintza Batzordean adostu ondoren, erabakitzen da Aldaketa Puntualaren dokumentuko proposamena bere horretan mantentzea. Horri dagokionez, berretsi egiten da idazle-taldeak eginiko balorazioa eta alegazioa ez onartzea proposatzen da.

Alegazioaren gainerako eskarien inguruan Udala, eta Hirigintza Batzordea, bat datoz idazle-taldeak eginiko balorazioarekin.

2 Alegazioa. Aspapel.

Aurkeztu den alegazioaren edukia Arabako Basogintza Elkarteak aurkeztutakoaren bera denez, aurretik aipatu den erantzuna berretsi egiten da.

3 Alegazioa. Baskegur.

Hirugarren alegazio honen edukia aurreko bien bera denez, aurretik aipatu den erantzuna berretsi egiten da.

Ondoren alkateak adierazten ditu, orohar, behin-behineko onarpenerako dokumentuak jasotzen dituen aldaketak:

- Indarrean dagoen antolamenduan aldatzen diren eremuak:

1. I.B.07 EREMUA: Eremua bitan banatzea. Lehena, hiri-lurzoru finkatua bezala kalifikatuta, gauzatutako etxebizitza eta urbanizazioarekin mugatze da; bigarrena, eraikigarritasuna handitzearen ondoriozko hiri-lurzoru finkatugabe bezala kalifikatuko da. Bigarren eremu honetan, aprobetxamendu urbanistikoa duen eremu bat izanik, eraikigarritasuna areagotzen da bertan behe oineko eta hiru solairuetako eraikina ahalbidetuz. (lehen, behe oina eta bi solairu zituen).
2. I.B.08 EREMUA: Kalifikazio aldaketa, zona berde eta espazio librea izatera zuzenduriko espazio, azpiegitura eta zerbitzuen zona izatera pasako da, bertan, sare elektrikoko azpiegitura bat egin baita. (ekipo elektrogenoa).
3. KATALOGOA: Katalogoko arauen testuan, gehitu dira Aldundiko ondarearen zerbitzuko hainbat gomendio gehitu dira. (3.1.3.1.B artikulua.)
4. LURZORU URBANIZAEZINA:
 - 4.1. Arau-testuan, zortasun aeronautikoei buruzko gaiak gehitu dira. (1.6.2.3.D.5 artikulua)
 - 4.2. ERAIKINETARA DISTANTZIAK: Arau testuan, gehitu da nekazaritza eta abelazkuntza eraikinek beste eraikinetara edo alboko partzeletara dituzten distantziak erdira murrizteko aukera, beti ere, 515/2009 Dekretuak determinatutako nekazaritza eta abelazkuntza ekoizpenera orientazio nagusia duten espazioetan kokatuta badaude.
 - 4.3. LANDAKETAK: Baso erabilera onartuei dagokien, lurzoru urbanizaezineko (j.1.4, j.2.1 eta j.2.5) erabilera onargarriak determinatzen dituzten artikulua aldatu dira. Era berean, baso erabilera arautzen dituen artikulua aldatu da, bertan hainbat baldintza ezartzeko eraikinetatik baso landaketetara izan beharreko 100 metroko distantziari dagokionez.

- Proposatutako aldaketak eta onartu ez direnak (txosten sektorialek baztertuak):

1. IB04 eremuan etxebizitza berriaren proposamena, Eusko Jaurlaritzak atzera bota duena, interes orokorrik ez dagoelako.
2. IB08 eremuan kimaketa adarrak biltzeko eremua, kalifikazio aldaketa, URA Agentziak atzera bota duena, uholdegarria delako eta ezin delako biltegitzerik egin.

- Hirigintza antolamendua bertan behera uzten den eremuak:

Hirigintza antolamendua bertan behera gelditzen den eremuak HAPOaren aldaketaren eraginpean daudenak izango dira eta etenaldia urtebetekoa izango da.



Besterik gabe, alkate-lehendakariak aurkezten du, Hirigintza Batzordeak Udalbatzari egiten dion akordio proposamena:

“**Lehena.-** Honako alegazio hauek ezestea:

Sarrera-erregistro zk.	Data	Alegatzailea
A/19-675	2019/05/16	Arabako Basogintza Elkarte
A/19-676	2019/05/17	ASPAPEL
A/19-663	2019/05/16	BASKEGUR

2019ko ekainaren 12ko txostenean idazketa-taldeak adierazitako arrazoiengatik. Erabaki honen jakinarazpenarekin batera, interesdunei horren kopia bat bidaliko zaie.

Bigarrena.- Behin-behineko onarpena ematea Hiria Antolatzeko Plan Orokorren bigarren aldaketa puntualari, aurreko izapideen ondoriozko aldaketekin.

Hirugarrena.- Behin-behinean onartutako Plan Orokorren bigarren aldaketa puntuala Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea, dagokion txostena egin dezan. Txosten hori loteslea izango da Plan Orokorren bigarren aldaketa puntuala gainerako lurralde-antolamendu tresnetara eta beharrezko alderdi sektorial guztietara egokitzeari dagokionez.

Laugarrena.- Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso ondoren, plan orokorraren bigarren aldaketaren idazketa-taldeak Plan Orokorren aldaketan haren edukia txerta dezaten agintzea.

Bosgarrena.- Behin-behineko onespren erabaki honen berri ematea Oletako Administrazio Batzarrari, eta behin-behinean onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko proposamena bidaltzea, dagozkion ondorioetarako.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, udalbatza osatzen dutenen gehiengo absolutua bertan dagoelarik, Hirigintza Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. GALDERAK ETA ESKAERAK.

1. Pedro Elozegui González de Gamarrak galdetzen du, ea zer den Albina inguruan azaldutako lindanoz betetako bidoiaren kontua.

Alkateak adierazten dio, SOS-Deiak zerbitzutik abisua jaso zela udalean, Albina inguruan lindanoz betetako bidoi bat zegoela esanez. Udal zerbitzuak bertaratu eta bertan aurkitu zuten oso egoera txarrean zegoen bidoi metalikoa eta bere edukia, bidoiaren barruko produktua, inguruan zabaldua zegoen. Gaia nola bideratu erabaki aurretik, URA Ur Agentziak errekerimendua bidali zion udalari bidoi hori arriskutsua zela eta bertatik kendu beharra zegoela esanez, inguruan errekek baitaude eta, baita ere, beste baliabide hidriko batzuk.

Horren aurrean, Aramaioko Udala bere abokatuekin kontaktuan jarri zen eta alegazioa jarri zuten egindako errekerimenduaren aurrean. Alegazioaren arrazoiak, besteen artean dira: lehenik, udalaren eskumenak hondakinei dagokionez, hiri hondakinekin lotuak daudela eta, kasu honetan, ez dira hiri hondakinak, ez horien kokapenagatik eta, ezta ere, hondakinaren izaera arriskutsuagatik; bigarrenik, lursail pribatu batetan kokatutako hondakina da, hain zuzen ere, AMVISaren jabetzakoa (Gasteizko ur zerbitzua); hirugarrenik, udalak ez duela gisa horretako hondakin arriskutsuei aurre egiteko baliabiderik; eta, laugarrenik, hondakin arriskutsuei buruzko eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokiola. Guztiaren berri jakinarazi zitzaion Ura – Ur Agentziari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.